

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

366

EBAZPENA, 2017ko abenduaren 29koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena. Honen bidez, unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioen-tzako laguntzak ematen dira.

Hezkuntzako sailburuaren 2017ko irailaren 26ko Aginduak egindako deialdian ezarritakoari jarraituz, eta izapidetu diren espedienteak aztertu ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Arlo edo lurralde eremuak kontuan hartuz ebazpen honen I. eranskinean zehazten diren laguntzak ematea ikasleen guraso elkarten federazio eta konfederazioei 2017. urtean egingo diren ekintzak finantzatzeko.

2. artikulua.– Diru-laguntzen lehen ordainketa elkarte bakoitzari dagokion diru-laguntzaren % 75ekoa izango da. Ordainketa alde aurretik egingo da eta betiere, diru-laguntza onartu ondoren deialdiaren aginduko 14.c) artikuluan jasotzen den bezala. Gainontzeko % 25a, «Egindako gastuaren justifikazioa» delako inprimaki normalizatua, behar bezala beteta, eta ordura arte izandako gastuen faktura eta ordainagiriak aurkezten direnean ordainduko da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 29a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.

I. ERANSKINA

Konfederazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Bizkaia	Ehige	70.000

Lurralde historikoetako federazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba	Denon eskola	47.966
Gipuzkoa	Baikara	57.271
Bizkaia	Fapv-Bige	64.763

Beste federazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba	Fapacne	10.659
Bizkaia	Fecapp	27.938
Bizkaia	Bigef	11.121
Bizkaia	Gidari	3.660
Bizkaia	Elkargarri	2.530
Bizkaia	Ikasge	4.614
Bizkaia	Fapae	5.779
Bizkaia	Bidelagun	8.000
Gipuzkoa	Feguiapa	12.541
Gipuzkoa	Gigef	16.449
Gipuzkoa	Federación Eskola Txikiak	6.709